Lezoko Unibertsitateko Udala

**KULTURAKO ZINEGOTZI DELEGATUAREN**
**D 14/00438 DEKRETUA**

**2014ko Mendekoste jaietan salmenta postuak jartzeko arauak**
Normas para la instalación de puestos en las fiestas de Pentecostés 2014
**2014KU230001**

Lezoko Udalak antolatzen dituen herriko jaietan, Mendekoste eta Santakrutz jaiak, ohiko da eskaera ugari jasotzea postuak jarri ahal izateko.

En las fiestas locales que organiza el Ayuntamiento de Lezo, fiestas de Pentecostés y SantaKrutz, es habitual recibir numerosas solicitudes para instalar puestos.

Udal osoko batzarrak 2013ko urtarrilaren 31ean onartu eta 2013ko ekainaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Salmenta Ibiltariari buruzko udal ordenantzaren aplikazio eremuan daude herriko jaietan jartzen diren postuak. Horrela jasota dago araudiaren 2.b) artikuluan. Ondorioz udal ordenantza horretan xedatutakoa zaie aplikagarri herriko jaietan jarri nahi diren postuei.

Los puestos que se instalan en fiestas están dentro del ámbito de aplicación de la Ordenanza Municipal reguladora de la Venta Ambulante, aprobada por el ayuntamiento pleno el 31 de enero de 2013 y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 17 de junio de 2013. Así lo establece su artículo 2,b). En consecuencia la citada ordenanza municipal les es de aplicación a los puestos que se instalen en las fiestas locales.

Dena den Salmenta Ibiltariari buruzko Udal Ordenantzan xedatutakoa zehazteko eta jaietan jarriko diren postuak antolatzeko Alkatetza honek salmenta postuak jartzeko baimenak emateko Arauak finkatu ditu dekretu honen bidez.

No obstante, en el propósito de concretar la Ordenanza municipal reguladora de la Venta Ambulante y organizar los puestos que se pondrán en las fiestas locales esta Alcaldía ha elaborado las presentes Normas que regirán la concesión de autorizaciones para la instalación de los puestos.

Beraz, alkatetza honek ERABAKI du:

Por lo tanto, alcaldía RESUELVE lo siguiente:

**BAT**: 2014ko Mendekoste jaietan postuak jartzeko jarraian agertzen diren arauak onartzea.

**PRIMERO**: Aprobar las normas que a continuación se detallan para la instalación de puestos en las fiestas de Pentecostés 2014.

## 2014ko MENDEKOSTE JAIETAN SALMENTA POSTUAK JARTZEKO ARAUAK

### A) Eskaera datak.

Lezoko Udalak Mendekoste jaiak 2014ko ekainaren 6, 7 eta 8an antolatuko ditu.

Arauzko baimen administratiboa eskuratzeko, idatzitako **eskaera** bat egin beharko da, **maiatzak 23a baino lehen** Lezoko Udaleko Erregistroaren bulegoetan 8:00etatik 13:30etara.

### B) Baldintzak:

Jaietan postua jartzeko bete beharreko baldintzak:

1. Alta **egitea** ekonomia jardueren gaineko zergan, **dagozkion epigrafeetan, eta zerga hori ordainduta edukitzea, baldin eta gaiari buruz indarrean den araudiak hala eskatzen badu.**
2. **Alta egitea Gizarte Seguran**tzan, dagokion erregimenean, eta dagokion kuota ordainduta edukitzea. Pertsona juridikoek enpresa gisa eman behar dute izena Gizarte Segurantzan, beren langileek afiliatuta egon behar dute, eta kuotak ordainduta eduki behar dituzte.
3. **Higiene eta osasun baldintzak** (eta beste batzuk) betetzea, salmenta produktuei edo instalazioei buruzko araudi espezifikoek ezarritakoari jarraituz.
4. Elikagaiak saldu behar badira, **elikagai-erabiltzailearen agiria.**
5. Udalaren baimena **izatea.**
6. **Dagozkion** tasak ordaintzea.

## NORMAS PARA LA INSTALACIÓN DE PUESTOS EN LAS FIESTAS DE PENTECOSTÉS 2014:

### A) Plazo de solicitud.

El Ayuntamiento de Lezo, tiene prevista la organización de las fiestas de Pentecostés los días 6, 7 y 8 de junio de 2014.

Para optar a la reglamentaria autorización administrativa deberá formalizarse una **solicitud** por escrito **antes del 23 de mayo de 2014** en las oficinas del Registro del Ayuntamiento de Lezo en horario de 8:00 a 13:30 horas.

### B) Requisitos:

Requisitos para poder poner un puesto en fiestas.

1. **Estar dado de** alta **en los epígrafes correspondientes del** impuesto sobre Actividades Económicas **cuando así se exija por la normativa vigente en esta materia y encontrarse al corriente de su pago.**
2. **Estar dado de** alta en el régimen de la Seguridad Socia**l que corresponda y al corriente de pago de la cuota. En el caso de personas jurídicas estar inscrito como empresa en la Seguridad Social, tener afiliados a sus trabajadores y estar al corriente en el pago de las cuotas.**
3. Cumplir los **requisitos higiénico sanitarios** o de otra índole que establezcan las reglamentaciones específicas relativas a los productos comercializados e instalaciones.
4. Tener el **carnet de manipulador de productos alimentarios** en el caso de que los productos expuestos para la venta sean comestibles.
5. **Disponer de** autorización municipal.
6. **Satisfacer el** pago de las tasas **correspondientes.**

## C) Eskaerak eta dokumentazioa:

Salmenta postu bat ustiatu nahi duen pertsonek eskaera egin behar diote honako datu hauek adieraziz eta dokumentazioa gehituz:

a. Eskatzailearen izen-abizenak edo, hala badagokio, sozietatearen izena.
b. Pertsona fisikoaren edo juridikoaren identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ).
c. Helbidea eta telefonoa.
d. Instalazioen eta salgaien deskribapena.
e. Horrez gain, pertsona juridikoek entitatearen baimena erabiliko duen langilearen edo bazkidearen datuak eman behar dituzte: izen-abizenak, helbidea eta NAN zenbakia.
f. Langile edo bazkide hauen harremanetarako telefonoa eta NAN edo baliokidea denaren zenbakia.
g. Elikagaien salmenta kasuan ezinbestekoa duen produktuak saltzeko egokitutako furgoneta edo kamioi bat erabiltzea.
h. Ekonomia jardueren gaineko zergan altan egotearen agiriak, dagozkion epigrafeetan, baldin eta gaiari buruz indarrean den araudiak hala eskatzen badu eta zerga hori ordainduta edukitzea.
i. Gizarte Segurantzan altan egotearen agiriak, dagokion erregimenean, eta dagokion kuota ordainduta edukitzea. Pertsona juridikoek enpresa gisa eman behar dute izena Gizarte Segurantzan, beren langileek afiliatuta egon behar dute, eta kuotak ordainduta eduki behar dituzte.
j. Elikagaiak saldu behar badira, elikagai-erabiltzailearen agiria.

## C) Solicitud y documentación.

Las personas interesadas en explotar un puesto de venta dirigirán una solicitud a la Alcadesa, en la que harán constar los siguientes datos y aportar la siguiente documentación:

a. Nombre y apellidos del peticionario/a, o razón social en su caso.
b. Número de Identificación Fiscal (N.I.F.) de la persona física o jurídica.
c. Domicilio y teléfono
d. Descripción de las instalaciones y de los artículos de venta.
e. En el caso de personas jurídicas, además se hará constar, el nombre, domicilio y DNI de los empleados o socios de la entidad que vayan a hacer uso de la autorización por cuenta de ésta.
f. Teléfonos de contacto y número de DNI o equivalente de dichos empleados o socios.
g. En caso de venta de alimentos si le es imprescindible utilizar una furgoneta o camión acondicionado para la venta de los productos.
h. Acreditar estar dado de alta en los epígrafes correspondientes del impuesto sobre Actividades Económicas cuando así se exija por la normativa vigente en esta materia y encontrarse al corriente de su pago.
i. Acreditar estar dado de alta en el régimen de la Seguridad Social que corresponda y al corriente de pago de la cuota. En el caso de personas jurídicas estar inscrito como empresa en la Seguridad Social, tener afiliados a sus trabajadores y estar al corriente en el pago de las cuotas.
j. Aportación del carnet de manipulador de productos alimentarios en el caso de que los productos expuestos para la venta sean comestibles.

Dokumentu horiez gain Udal zerbitzuak osagarri irizten duten dokumentazio zehatza eskatu dezakete.

Arau hauetan eskatzen diren agiri guztiak edo baten bat faltaz gero, nahikoz izango da baimenik ez emateko

**D) Postu kopurua, lekua eta ordutegia.**

1. Alkatetza honek 2014ko Mendekoste jaietan postuak jartzeko ondorengo tokiak eta kopuruak zehazten ditu:

a) Kokagunea (1): Zubitxotik Lezo Herri Eskolako bidean.

- Txutxe eta jolas salmenta postuak. Postu kopurua 9 (gehienez ere 5m. luzerakoak).

b) Kokagunea (2): Zubitxo kalean.

- Bertan eta furgonetan elaboratu beharreko elikagaien salmenta postuak: (kebap, hanburgesak, txurroak,...). Postu kopurua 3.

c) Kokagunea (3): Donibane kalean Kulturako bulegotik Gurutze Santuaren plazara.

- Elaboratuak (pastelak) edo elaboraziorako furgoneta behar ez duten salmenta postuak (taloak, ...). Postu kopurua 3 (gehienez ere 5m. luzerakoak).

2. Jai bakoitzeko eta toki bakoitzeko eskaeren kopurua, izendatutakoak gainditu ezkero, baimenak **zozketa** egin ondoren emango dira.
Zozketaren emaitza udaletxeko iragarki taulan eta www.lezo.net web orrian argitaratuko da.

3. Eskatzaile bakoitzak jai bakoitzeko ezin izango du baimen bat baino gehiago lortu.

Además de estos documentos los servicios municipales podrán solicitar la documentación específica complementaria que considere precisa. .

La falta de todos o alguno de los documentos exigidos en las presentes normas para acompañar a la solicitud de autorización será causa suficiente para la exclusión de la misma.

**D) Número de puestos, ubicación y horarios.**

1. Esta Alcaldía establece la siguiente ubicación y número de puestos para las fiestas locales de 2014:

a) Ubicación (1): En el camino desde Lezo Herri Eskola desde Zubitxo.

- Puestos de venta de golosinas y juguetes. Cantidad de puestos 9 (máximo una longitud de 5 m).

b) Ubicación (2): En la calle Zubitxo

- Puestos de venta de alimentos que tengan que ser elaborados en el propio lugar o en furgoneta: (kebap, hamburguesas, churros,...). Cantidad de puestos 3.

c) Ubicación (3): En la calle Donibane desde la oficina de Cultura hasta Gurutze Santuaren Plaza.

- Productos elaborados (pasteles) o que no necesiten para su elaboración una furgoneta (talos,...). Cantidad de puestos 3 (máximo 5 m de longitud).

2. Si el número de solicitudes por cada ubicación fuese mayor a los puestos previstos las autorizaciones se darán previo **sorteo**.

El resultado del sorteo se hará público en el tablón de anuncios del ayuntamiento y en la página web www.lezo.net.

3. Cada solicitante sólo podrá optar a una autorización por cada festividad.

4. Antolamendu arrazoiak direla eta, ematen diren baimenetan zehaztuko da txosna bakoitzak gehienez izango dituen neurriak, eta **Udalak esleitutako lekuak errespetatu** eta igarobideak uneoro garbi mantendu beharko ditu.

4. Por razones organizativas se concederán autorizaciones indicando las medidas máximas de la ocupación **debiendo respetar los lugares asignados por el Ayuntamiento** para la instalación, manteniendo en todo momento diáfano los espacios asignados por la misma para paso.

5 .Baimendutako titularrek **2014ko ekainaren 6ko arratsaldeko 17:00etatik ekainaren 8ko gaueko hamabiak arte** jarri ahal izango dituzte postuak. Une horretan jarduera denak bertan behera gelditiko dira.

5. La autorización para la instalación de puestos será **entre las 17:00 horas del día 6 de junio de 2014 hasta las 24:00 horas del día 8 de junio** momento a partir del cual cesará toda actividad.

## A) Baimenak

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, baimenen berri emango da interesatuei, egin beharreko ordainketa egin dezaten. Ordainketak jaiak hasi baino lehen gutxienez egin beharko dira.

Baimenarekin batera, ebazpen honen kopia helaraziko da interesatuei. Akordio honetako araudiak eta higienearen eta osasunaren arloko baldintzak betetzea derrigorrezkoa da.

Emandako baimenak **ezin dira besterendu**, eta baimendutako jarduerak titularrek garatuko dituzte eta ez beste inork. Baldintza horiek betetzen ez badira, baimenak ondoriorik gabe geratuko dira.

## A) Autorizaciones

Una vez finalizado el período de presentación de solicitudes se comunicarán las correspondientes autorizaciones, para que el interesado pueda formalizar el pago que deberá realizarse antes del inicio de las fiestas.

Al interesado se le notificará la licencia correspondiente junto con una copia del presente acuerdo cuyas normas son de obligado cumplimiento así como las condiciones higiénico sanitarias

Las autorizaciones que se concedieren **no serán transmisibles** y las actividades autorizadas habrán de ser desarrolladas por los titulares de aquellas y no mediante representación de un tercero, quedando sin efecto si se incumplieren las condiciones.

## B) Betebeharrak.

1.- Baimenaren titularrak eskaerari gehitutako agiriak izan beharko ditu postuan, udaltzainek eskatuz gero, erakutsi ahal izateko.

2.- Piroteknia (petardoak, e.a.) eta bere ezaugarriengatik pertsonei zauri edo lesioak eragin diezaieketela aurreikusi daitezkeen produktuen salmenta debekatuta dago.

3.- Baimendutako postuak **ezin izango dituzte megafonoak instalatu,** antolatutako ekintzak ez oztopatzeko.

4.- Arau hauek betetzen ez badira, Lezoko Udalak egokitzat jotzen dituen erantzukizunak eskatu ahal izango dizkio baimenaren titularrari.

5.- Arau hauetan ez dioena osatzeko eta haren kontraesanean ez dagoenerako Salmenta Ibiltariari buruzko Udal Ordenantza aplikagarria da

**BI**: Erabaki hau udaleko web orrian eta iragarki taulan iragarriko da.

**HIRU:** Erabakiaren aurkako errekurtsoak:

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezake 30/1992 Legearen arabera.

- Horretarako, hilabeteko epea dauka, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
- Errekurtsoa aurkeztekotan Alkatetzara jo behar da.

## B) Obligaciones.

1.- El titular de la autorización deberá tener en el puesto a disposición de cualquier agente municipal la documentación que adjuntó a la solicitud..

2.- Queda prohibida la venta de productos pirotécnicos (petardos, etc...) y aquellos otros que por sus características se presuma puedan causar daños o lesiones a las personas.

3.- Los puestos autorizados **no podrán utilizar ninguna instalación de megafonía** para no interferir las actividades programadas.

4.- El incumplimiento de las presentes Normas, en cualquier de sus puntos, facultará al Ayuntamiento de Lezo para exigir al titular de la autorización las responsabilidades que puedan derivarse de dicho incumplimiento.

5.- Para todo lo no dispuesto en estas normas y en lo que no contradiga a las mismas. Será de aplicación lo dispuesto en la Ordenanza Municipal reguladora de la Venta Ambulante.

**SEGUNDO:** Anunciar este acuerdo en el tablón de anuncios y en la página web del ayuntamiento.

**TERCERO:** Recursos contra esta resolución:

a) El solicitante, si así lo desea, puede presentar un recurso de reposición, antes de acudir al contencioso (Ley 30/1992).

- Para ello tiene el plazo de un mes a partir del día siguiente a recibir la notificación de esta resolución.
- De presentar recurso debe dirigirse a Alcaldía.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake zuzen-zuzenean.

- Horretarako, bi hilabeteko epea dauka, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita
- Errekurtsoa aurkeztekotan, EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako Donostiako epaitegira jo behar da.

b) De lo contrario, puede presentar directamente un recurso contencioso administrativo.

- Para ello tiene el plazo de dos meses a partir del día siguiente a recibir la notificación de esta resolución.
- De presentar recurso debe dirigirse al Juzgado de lo contencioso administrativo de San Sebastián del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Lezo, 2014/05/16.

LEZOKO UDALA * EUSKARA KULTURA *

Mikel Arruti Salaberria, Kulturako zinegotzi delegatua